

 **111.13.** *Black mirror* errealitate bihurtuko da Txinan

**Netflixeko telesail famatuenetakoa da *Black Mirror*; *Nosedive* kapituluan, jendea puntuazio bidez sailkatzen dute. Sistema hori jarri nahi dute martxan Txinan. Beldurgarria, ezta?**

Teknologiaren alde ilunaz ohartarazten duen telesail bikaina da *Black Mirror*; bertan, oraindik gertatzen ez diren, baina gerta daitezkeen muturreko egoerak deskribatzen dizkigute, teknologiarekiko menpekotasunaren arriskuez ohartarazteko. Baina Txinan dagoeneko mundu distopiko horretan bizi dira; egun, herrialdean, 20 milioi kamerak bertako biztanleak zelatatzen dituzte, eta, Xinjiang probintzian, agintariak hiritar guztiak beren telefonoetan aplikazio zelatari bat instalatzera behartu dituzte, legez, bestela kartzelara joan daitezke.

Hori da egungo errealitatea Txinan, baina pauso bat aurrerago joan nahi dute; hain zuzen, *Black Mirror* telesaileko *Nosedive* kapituluan agertzen den sailkapen-sistema jarri nahi dute martxan. Sailkapena sakelako puntuazio-sistema baten bidez egiten da, eta Instagramen antza dauka: zenbat eta 'atsegin dut' gehiago jaso, orduan eta aukera gehiago eskainiko dizkizu gizarteak; ez baduzu gutxieneko puntuazioa lortzen, ordea, paria bihurtuko zara.

Txinak hau nahi du: bertako biztanleak erosten dutenaren, irabazten dutenaren eta pentsatzen dutenaren arabera sailkatu. Hala, ohiko kanonak betetzen ez dituzten pertsonak susmagarritzat jo ditzakete, automatikoki. Ondorioz, Gobernuak uste badu hiritar baten iritziak, zergak edo isunak gehiegizkoak direla, oinarrizko eskubideetan zuzeneko eragina izango luketen zigorrak aginduko ditu, hala nola gizarte-segurantza etetea. Dagoeneko bezeroen datuak pilatzen dabilta hainbat enpresa, batez ere bankuak, baina datu salerosketan erregeak Google eta sare sozialak dira. Beldurgarria, ezta?

*Gaztezulo (moldatua)*